

50/2024 EBAZPENA, AZAROAREN 21EKOA, BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIARENA, 2024AN BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA IZAN ETA MANKOMUNITATEARI DIRULAGUNTZA ESKAERA EGIN DIOTEN ERAGILEEI ORDAINTZEARI BURUZKOA.

Batzorde Erabakitzaileak 2024ko urtarrilaren 31n egindako bileran, Bortziritan Bai Euskarari Ziurtagiria duten eragileei dirulaguntza emateko deialdia onartu zuen.

Teknikariaren 2024ko azaroaren 19ko txostena ikusirik, 7 eskaera jaso dira; denek aurkeztu dituzte eskatutako dokumentuak eta epearen barrenean aurkeztu dira.

Dirulaguntzaren deialdian (7. oinarria) baldintzak betetzen dituen eskatzaile bakoitzari 45,50 euroko laguntza emanen zaiola zehazten da, eta baldintza guztiak betetzen dituzten eskatzaileak kontuan hartuta, guzira 318,50 euroko gastua sortuko da; mankomunitatearen 2024ko aurrekontuan badago nahikoa krediturik gastu horri aurre egiteko.

Horiek guztiak kontuan hartuta, EBATZI DUT:

1) Ondoko eskatzaile hauetako bakoitzari 45,50 euroko laguntza ordaintzea:

Pello Apezetxea Kultur Gunea (sarrera zkia: 130); Lekuona arkitektura (sarrera zkia: 139); Altxata Kultur Elkarte (sarrera zkia: 146); Saragueta Aholkularitza (sarrera zkia: 152); Espidobaita Kultur Elkarte (sarrera zkia: 206); Euskaltegia-Matxinbeltzenea Aterpetxea (sarrera zkia: 214); Sorkunde Benta (sarrera zkia: 218).

2) Eskatzaile guztiei ebazpen honen berri ematea.

Eta behar den lekuan hala ager dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, hauxe sinatu dut, sinadura digitalean agertzen den datan.

LEHENDAKARIAK
Leire Mitxelena Gamio

ZIURTATZEN DU, IDAZKARIAK
Nagore Madariaga Iriarte